- Heriotz ondoko momentu gogorak

- Norbere umea modu horretan joan beharraz ez daukat beste penarik. Gaixo batetik izan bazan, iruntsi behar dozu, baye holan joan beharra. Auzokoak gaubeilan laguntan egon ziran: Nikasia, Errufina, Jesusa, Zeferina,... Eta inguru hau guardiz beterik. Entierrure be jendea joatea galazota egoan. Guardi Zibilak Harrizkozubitik ez eban itxiten pasetan jendea. Gure mutile modu horretan joan beharraz, da daukoda pena...

- Eta Martin senarra?

- Martin senarra bronkioetatik txarto ebilen, eta bigarren urteko mezara bihorrean bajatu behar izan eban. Josu hil, eta bi urtetara Martin hil zan. Semearen heriotzak senarrari ez eutson onik egin, eta erdi bez.



Florentina Aiesta, 84 urtegaz sutondoan. 1998

- 25 urte hauek zelan pasatu dozuz?

- Jaungoikoari esker, negarraldi asko eginda. Iñok pentsetan ez dauzen negarrak egin dodaz... (*Florentinaren negarraldia*). Zenbat bider negar egin dodan, eta berton gogortu egin naz. 25 urte luzeak dira, ondo joan ezker labur, baye gure kasuan, egun txar asko pasau dot. Hainbeste ofizio eukita joan zan moduan joatea, haren hutsunea ez da ahiztuten.

- Josuren heriotzak zeozertarako balio beharko dau?




- Bakea, osteiko gazteentzak... sikaner disfrutau deiela. Josuk bere bizitza emon eban. Bakea egin daitela. Bakea diruegaz ez da pagetan. Etorkizuna hobe datorrela. Gureak suerte txarra euki eban. Hain txarra ze, baten batek pagau behar dau eta. Bakea gauza handia da. Onerako izan daitela.

- Besterik Florentina?

- Omenaldian parte hartuten dozuen guztioi eskerrak. Neu ez noa, ez naz kapaz, ez dot balio hango berbak entzuteko. Nik mezea entzungo dot, baina ni etxera ekarri gero.

Hiruaratxeta baserriko su epelean itxiten dugu Florentina andre baliotsua, gaur 84 urte izanik, eta egun 25 urte erahil zuteneko Josuz, mundu bat balio eban mutilaz akordetan, bere semeaz gogoetan...

Benetan maite banozu be ez nitzaz negar egin, otoi, otoi, Jaunak batu gaizan barrero.



Arietxe eta Ayesta'tar Jose

**GAZTEA
IL DA**

Donostia 1973ko Abenduaren 2an

31 urte zituela. Azken igurtza ariarik

(GOIAN BEGO)

Bere gurasoak: Juan Martin eta Fiorentino; anaiek: Juan Manuel eta Roman; ezkon-arreba: Eguski-zat'ar Divina; osaba-izeko, lengusu eta gañerako senideak.



Ikaskide bat akordun

Eup Josu, babil eztok:

Elkarregaz hitanoa jerabilgun eta oin, ez nok beste modu batera hasiko. Santa Kurtzeko eskolan ezetu, eta len komuniñoa be batera ein gañoan, eguna be akordun jaukoat, 1959ko maiatzaren 17a, ze konturau barik, samaraino mozkortu in nintzoan.

Hik Josu, lagun asko eukazan eta Huriondokoak be ezeunek hitzako. Hareik bazkaria jekardien eskolara, eta gu harei begire, iñon bazkaria norbere etxekoa baño hobeza zalakoan edo...

Kinta berekoak beti olgetan ibiltzen giñoazan: marroka, txapak, iturriek, tiragomak, txirrintolak,... Baye, akordun jaukoadana zera dok: hi Josu, Olatzarreko Jose Angel eta Juan Antonio, Untzetako Ketxu, Iñaki,... Hi heu, Mintegirako pistan paraute, eskolako tellatu ganetik harriak botetan induzen, eta beko errekara allegau. Damian Legardengoak be bardin, eta beste guztiok. Neu be gitxigo ez nintzoan izango, eta probau neuan probau, baye jaurtiz batera, mutilen klaseko kristala, zatz! apurtu ñeuan. Maistrak orduko egunean, bazkaiten joan barik kastigau jostan.

Halango urte baten, motorrez etorri zonan Aita Luzio kalmeldarra, kasku eta tunika zarragaz, eskolatik 3 mutil Zornotzako Konbentura proba egitera eroateko.

Eta joan, hi, Ketxu eta hirurok joan giñoazan. Latinez *rosa-rosae* irikasten jebirdian, baye Ketxuk eta biok, beste herritako mutilen kontra burrekaldiak egiten gustorago ibiltzen gintzozan. Horregatik, 10 egun bertan egin eta gero, geu Arkulandara bueltau giñan, txori-habiak, edo tripalak eragiten zituezan okeran berdeak topetara. Ordukoa dok, 1963ko abuztukoa, goian jauen argazkia: goien ezkerretik bigarrena Ketxu Idirin dok, eta bigarren hiladan, erdi erdian biok gauzek elkarren ondoan.

Hi formalago hintzen, eta harrezkero, Josu urte desberdinetan komentu bizitzan egon hintzan, denboraz, jakintza maila ona lortuz. Handik urten eta beharren hasi hintzan, eta gero ETAn sartu, Euskal Herriaren alde heure bizitza emon arte. Maisutza ikasten nembilela, Zurbaran-barri eskolan praktikak egiten, hire heriotzaren barri hartu ñeuan...

Baye, maisu handia heu be izan haiz Josu, heuk irakatsi eustak besteen alde euskal ardura eukitea zer doan. Heuk jakin barik baok pe, irakaspén ugari emon dostezak, eta guzti horregatik Josu, gogoeta honen bitartez, eskerrik beroenak emon gure deuzat. Ikusi arte!

Arkulandako Txerif

Sokoatik Laudioraino

Eskerrik asko Josu: hoy, 25 años después de que las balas franquistas acabaran con tu generosa vida, en plena juventud, lleno de ideales, ansias de libertad y amor a Euskal Herria.

Desde que te conocí en Sokoa, has supuesto un ejemplo de entrega a nuestra causa, y en cada aniversario en que hemos querido homenajearte y recordar tu gran aportación a la lucha por la liberación de nuestro Pueblo, hemos salido reforzados y con el compromiso de seguir tus pasos y tu ejemplo.

Que tu lucha y la de los como tú han dado su vida por Euskadi no ha sido inútil, se ve hoy más claro que nunca, y ante quienes cantaban un *réquiem* por nuestro Pueblo, pensando que ya estaba muerto, gritamos hoy con energía que está más viva que nunca Euskal Herria.

Pablo Gorostiaga.



Todo, gracias a quienes dándolo todo, sin límites, no dudásteis en convertirnos en semilla de libertad, aún a sabiendas de que el ciclo reproductivo pudiera ser largo, pero lo más importante era que ese ejemplo nuestro germinó dando una planta con sus flores y frutos.

Esa fuerte y resistente planta ha sido la organización a la que pertenecisteis, que a pesar de todos los ataques sufridos ha sobrevivido. Sus flores más hermosas son l@s pres@s que hoy pueblan las cárceles del opresor, y quienes tienen que refugiarse apartados de la savia que nutre la vida de este Pueblo, y los frutos son estas condiciones en las que hoy nos encontramos para encarar el proceso de Construcción Nacional que abordamos, reclamando el reconocimiento de los derechos que corresponden a Nuestra Nación.

Por todo ello, de nuevo eskerrik asko Josu!



ALTERNATIBA DEMOKRATIKOA

LEPOAN HARTU

La-la-ra
la-la-ra la-la la-la-ra
Lepoan hartu ta segi aurrera!
Lepoan hartu ta segi aurrera!.

Gazte bat lurrean aurkitu dugu,
lore gorritz beterik kolkoa...
burdiñen artetik ihesi dator
Euskal gaztediaren oihua!
Mutilak eskuak elkar gurutza
ekin ta bultza
denok batera
bidean anai erortzen bazaik
lepoan hartu ta segi aurrera.

Ez dugu beldurrik
ez dugu lotsarik
nor garen
zer garen
aitortzeko!
Ez gaituk lapurrak
ez eta txakurrak
kataiaz loturik ibiltzeko!
Gizonak bagara
jo zagon aurrera
gure Herriaren jabe egin arte
askatasunaren hegal azpian
kabia egiten ohituak gare
ibiltzen aspaldi ikasia dugu
otsoak eskutik hartu gabe.

Arrotzek ezpataz hil nahi banaute
izutuko gaituztelakoan
zutitu ta euskaraz mintzatuko naiz
nere hiltzailearen aurrean.
Mutilak ez gero nigarririk ein
erortzen banaiz
gau ilunean
izar berri bat piztutzeroa noa
Euskal Herriko zeru gainean...

Hego Euskal Herrian egiazko
demokrazia eraiki dadin, gure
Autodeterminazio
eskubidea eta gure
lurraldetasuna errekonozituko
ditu Estatu espainiarrak eta,
ondorioz, euskal herritarrok
erabakitzen duguna errespetatzera
konprometituko da.

Euskal gizarte osoa
inplikatu eta zuzeneko
partehartzearen bitartez,
nolako Euskal herria nahi dugun
erabakiko dugu. Eztatanda eta
erabakitze prozesu hau euskal
herritarroi soilik dagokigu eta, beraz,
euskal gizartea izango da hartu beha-
rreko erabakien **sujeitu bakarra**

Prozesua benetan
demokratikoa izan dadin, preso,
errefuxiatu, eta deportatu
eskubartzeari ahalbideratuko duen
amnistia emango da.

Aipatutako edukinak akordio
bidez lortu eta bermatzen direnean
bere iharduera armatua
geldituko duela adierazten du
ETAK.

Euskal Presoak Euskal Herrira



Euskal preso guzi k Euskal • Herrira or in

Ez adiorik, Alikates:

En todo el tiempo que ha transcurrido hasta hoy, han pasado muchas cosas, pero qué te voy a contar, cuando has estado observando desde la cumbre del Untzetapiku, viendo la lucha que hemos llevado desde que cogimos tu relevo. Ya que esos pequeños pilares que persisten con tu trabajo callado, tu aliento, tu esperanza, sólo roto por la muerte, hizo que otros emprendiéramos el camino con entusiasmo y voluntad de seguir adelante.

Hoy, nos encontramos, con nuestra mayor ilusión de poder establecer las bases, para que tantos *amig@s* y *compañer@s* de lucha, que han sufrido en sus carnes la tortura, la cárcel, el exilio, los sinsabores de algunos retrocesos, hasta lo más doloroso como la pérdida de la vida, entre ellos un amigo común Javi Goroztiza; también nos encontramos con las alegrías, las cosas bien hechas, las pequeñas batallas ganadas, el ver como han ido tomando el relevo varias generaciones de jóvenes con la ilusión de la victoria, llevándonos al mismo fin que te llevó a tí a tomar las armas por la liberación nacional y social de nuestra Euskal Herria.

Recuerdo como si fuera hoy el momento de tu muerte. Me encontraba en la cárcel de Basauri con los compañeros de organización, cuando por la televisión dieron la noticia de que la policía te tenía cercado en un piso de Altza. Fue un duro golpe, nuestra angustia era un simple punto en el océano comparando con los terribles momentos que tuviste que pasar en soledad defendiendo lo más querido para tí, nuestra Euskal Herria. No podía quitarme de la cabeza esos momentos y llegó la fatal noticia de que te habían asesinado. Aquel momento me impactó tanto, que hoy todavía me sigue impactando; es de las cosas que piensas que nunca deberían suceder, pero hay que admitir que muchas veces la vuelta a la realidad es cruel y por mucho que se quiera no se puede cambiar.

Si alguna vez he llorado de rabia e impotencia fue en ese momento, además mi aita también nos había dejado y todo este cúmulo de situaciones de ver morir a dos seres queridos me ha sido difícil de superarlos.

Pero también me gusta recordarte en los muchos momentos que pasamos con humor y alegría y así presentar algunos pasajes de tu corta vida. Cuando íbamos a la romería de Santa Lucía o San Segismundo, o tu gran afición al montañismo, tu amor por las motos, que hasta pusiste el nombre de chica a la que tenías: "Marisol", la defensa de la cultura vasca, del grupo de danzas "Etorki", de Ugao, de tu amor y defensa del euskera, de tu sentido de justicia social y eso que en aquellos tiempos campeaba el duro franquismo. En fin, eras un hombre sencillo, un euskaldun que salía por todos los poros de tu cuerpo. Pero, sobre todo, sobresalía tu personalidad, tu profunda conciencia abertzale que la exteriorizabas animando a *tod@s* tus *compañer@s* y *amig@s* para poder seguir adelante en la lucha por la INDEPENDENCIA y el SOCIALISMO.

Como dice un poeta que no recuerdo su nombre, pero que hace justicia a *tod@s* *l@s* *compañer@s* que han dado la vida por

Euskal Herria:

*Somos de donde nace el viento
y crece el roble
de donde un pueblo lucha
hasta morir
por gritar: ¡LIBERTAD!*

En fin, como te comentaba, sigues entre nosotros, noto tus ganas de luchar, tus ilusiones, tu fuerza, que ha hecho que *compañer@s* y *amig@s* hayamos seguido luchando y así hacerte el mejor homenaje, pues eras y eres el mejor gudari revolucionario.

Gero arte Josu

Iñaki Egiluz Sagastizabal
Cádizeko Puerton espetxean preso




EUSKALDUNAK DIRELAKO

PRESOAK EUSKAL HERRIRA



1973. urtean jausitako gudariak






Txikia




Beltza

Pagaza

Josu



Artanda mendian aurten jarritako plaka.



**Quebecoko
hauteskundeak**
Autodeterminazioari
ateak zabal
diezaizkikeen
bozak bihar
..... 20-22

«Presoak Euskal Herrira» aldarrikapena bere egin du euskal gizarteak Bilboko kaleetan

Ordezkaritza politiko, sozial eta sindikal zabalak legea betetzeko exijitu du aho batez

politika

■ **Udalen Biltzarra martxan jartzea lehenetsi du HBK Batzar Nagusian**
HBK epe motzean Udalen Biltzarra abiatzeari eman zion lehen-tasuna atzo, Elorriko Batzar Nagusian. Euskal Herri osorako erakunde bat izatea premiazkoa dela nabarmendu zuten. Udal hauteskundeei EH sigilekin aurkeztea ere onetsi zuten. → 7

gizartea

■ **Federiko Krutwigen errautsak haizatu dituzte Laidako hondartzan** → 9
.....
■ **'Egin'-en lekukoa hartuko duen egunkari berriaren izena esango dute gaur Belodromoko festa handian** → 10

ekonomia

■ **Euskal nekazaritzak etsipenez begiratzen die Europatik datozen erreformei** → 16

kirola

■ **Racing-Reala, Athletic-Mallorca eta Villarreal-Alaves parez-pare gaur** → 26-28


kultura

■ **etikarizketa**
Joan Mari Irigoien: «Jarritako gaien inguruan koadro geldiak eskaini nahi izan ditut» → 35

■ **MILAKA LAGUNEK** Euskal presoak Gaborak baino lehen Euskal Herriratzeko aldarrikatu zuten atzo Bilbon, Senideak eta Gureak elkarrekin antolatutako manifestazioan. Kopururik eman ez bazen ere, manifestazioa izugarri jendetsua izan zen: burua udaletxera irtiti zenean, atzealdean Autonomia kalearen erdialdean zegoen artean. Ekimena euskal gizartearen aniztasunaren erakusgarri izan zen. EH, EA, IU eta norbanako gisa EAJko ordezkaritza zabalak bildu zuten. Guztiek legea betetzeko, presoan eskubide behinenak errespetatzeko eskatu zuten. Madariaga Senideen ordezkariek adierazi zuten, «elkarlanerako gune honetara, herri honen eskubideen zantzetari aurre egin ez ezik, etorkizun baketsu bat eraikitzen ere lagundu behar du». → 4-6



Manifestazioaren ikuspegi orokorra Sibioko Antsoomia kalean. XOUSE SEMAL



Karmelo Landa,
urtebeteko
espetxealdiaren
hausnarketa Basauritik

«Kontua ez da gu kartzelan gaudela. Kontua da ea Euskal Herri honek askatasuna eta demokrazia izango duen, berandu baino lehen...»

LIBURUDENDA
OKENDO KALEA, 4
Tel.: 943 42 82 89
DONOSTIA

Hontza
Eta orain aukerako liburuak
ELKANO. 7

Alcalatik Ugaora

Aupa burkideok:

Josuren erahilketa basatiaren mende laurden luzea igaro denean, une garrantzitsu hauetan azpimaratzekoa da gaur ere borrokatzen jarraitzen dugula, garai hartan borrokatzen ari ginen helburuengatik.

Garai hartako etsaiek, gure Herriaren zapaltzaileek, eta gaurkoek, ardatz berdinen inguruan mugitzen dute bere zapalkuntza, Konstituzio Espaniarra eta Espaniaren batasun haustezinean hain zuzen biltzen dituen mezua, errepresioan oinarritutako «una, grande y libre», baizik ez da.

Ukatzerik ez dago urte hauetan urrats handiak eman ditugula eta, gaurtik aurrera, eman beharko ditugunak ez direla errazak izango. Ez dugu ahaztu behar E.T.A.k su-etenaren aldarrikapenean zabaldutako mezua, hau da, hitza herriari eman behar zaiola, herriak erabaki behar duela Euskal Herriaren geroa. Mezu horrek Euskal Herri subirano baten eraikuntza eguneroko lanean oinarritu behar dugula esan nahi du, beraz, denoi dagokigu ahal duguna ematea eta egitea, gutxi batzuk dana ematen jarrai ez dezaten.

Eman diren urratsak, txiki eta handiak, ur tantak baizik ez dira gure eusko lurak asetzeko behar duenarekin parekatuz. Asko bada gelditzen zaiguna, ez da txikiagoa Euskal Herria independente bat lortzeko dugun gogoa, ziur naiz denon lanarekin lortuko dugula.

Esan beharrik ez dago Josu gudariari egiten diogun omenaldi hau, borroka bidean erori diren, espetxean eta herbestean dauden ugaotar beste gudariei ere zabaltzen diedala. Herriak ez zaituzte ahaztuko!



*Izan direlako, gara.
Eta garelako, izango dira!*

Gogor eta orain arte
bezain adoretu jarrai!

*Gora Euskadi Askatuta!
Gora Euskadi Sozialista!*

Josu Urrutikoetxea

Belaunaldiz belaunaldi* euskal independentzira

Josu Artetxe Aiesta zeberiotar abertzalea hil zuteneko 25. urtemugaren ospaketak aukera ematen digu, euskal independentziaren aldeko ibilbide historikoan protagonista izan diren belaunaldien behin eta berriroko eskabidea plazara ateratzeko.

Ezaguna denez, XIX. mendeko guda karlistetan, espaniar ejerzitoak garaipen militarren bidez, Hegoaldeko euskal sistema politikoa suntsitu zuen. Eta orduan, euskal foru-taiuketa galduta, Xenpelar bertsolariak mezu guztiz gaurkotuagoa atera zuen: *Jaioko dira berriak, gu gara Euskal Herria*.

Eta urte batzuk beranduago, *beste belaunaldi bat jai*o, jai egin zen. 1936ko gudan, Francoren konkista militarrek, euskal independentismoaren alde lanean zegoen belaunaldiaren iharduera ia errotik suntsitu zuen.

Ondorengo diktaduraren urte ilunetan, berriz ere, *belaunaldi berri batek*, borroka armatuari ekin zion, eta gatazka horretan eta sufrimendu askoren artean, ejerzito arrotzak, besteak beste, Josu Artetxe Aiesta erahil zuen.

Oraintsu, ETA erakundeak, su etena iragarri zueneko garaian, BBC telebistan eginiko adierazpenean, Estatu Espania-rra eta Euskal Herriaren arteko gatazkari irtenbidea demokratikoa eman behar zaiola aldarrikatu du bihar etzi baten, *hurrengo belaunaldi batek* berriro ere armak hartzerantz behartua egon ez dadin.

* belaunaldiz belaunaldi = de generación en generación

Josuren heriotzaren 25. urtemuga honetan, aspaldion ezagutu ez dugun egoera politiko itxaropentsu bezain erabakiorrean aurkitzen gara. Hego Huribeko ezker abertzaleko *egungo belaunaldi gazteak*, haren aldeko omenaldia prestatuz, independentziaren garra inoiz baino adoretuago dagoela aldarrika liteke.

Beraz, *belaunaldiz belaunaldiko* euskal independentziaren aldeko abertzaleon borrokan, sakonean eta oinarrian zer egon den, zer dagoen, eta etorkizuenan ere, zer egongo den azter dezakegu.

1. Azurmendik Alsaziaz dioena (1982, 186), parafraseatuz, arazoa zera da: alde batetik, espaniar-frantsesek, historian zehar emaniko euren konkista militarren eskubidea inposatzen digutela, eta ondorioz, euskal hiritarron borondatea errespetatua ez izatea. Beste aldetik, guk ez dugu onartzen arrotz diren bi Estatuak gu gobernatzea, hau da, Euskal Herriak, bere status politikoa erabakitzeko autodeterminazio eskubidea esijitzen duela.

2. Ballesteros-ek zera dio (1992, 39): "konkista militarra goraiatua dela nazio batek bestearekiko menepenean, eta, balore militarra bihurtzen dela hegemoniaren onarpen juridikorako oinarria". Horra, Estatu Espaniarren kasua euskaldunekiko: lehenik, Bergarako Ituna, 1839.ean, "Se confirman los fueros,... sin perjuicio de los intereses generales y de la unidad constitucional de la monarquía".

Ehun urte beranduago, 1978.ean, frankismotik juankarlismorako transizio ez demokratikoa eman zen. Ikus bestela, Konstituzio Espaniarraren 8. Atala: "Las Fuerzas Armadas,... tienen como misión,... garantizar la soberanía e independencia de España, defender su integridad territorial y el ordenamiento constitucional".

3. Iztueta irakaslearen arabera, "botere-legimitatearen une fundatzailea bera da planteatzen dena: Zein da giza komunitate baten eskubide kolektibo eta indibidualen subjektua, Estatu ala nazioa? Konkistatzailearena ala, nahiz konkistatua izan, zuzenean ukitua den komunitatearena berarena?" (1996, 67). Hortxe ba, Espaniak sakonean duen boterea: konkista militarren eskubidean oinarritutako taiuketa politikoa euskaldunoi etengabe inposatzea.

4. Horra ba hor koxka: ea nor den euskal subjektu nazionala. Oraindik, Estatu izatera iritsi ez den nazio zapaldu bateko *aspaldian eta belaunaldiz belaunaldi*, abertzalegoak planteatutako aterabide demokratirako abiapuntu eta baldintza agertzen dugu, orain, uda aurretiaz, euskal demokratek, Lizarra-Garazi Adierazpenean gauzatua: Euskal Herriak du hitza eta erabakia.

Kepa PEREZ URRAZA

AZURMENDI J. (1992): "Esencia y esencialismo: análisis de un concepto", in PALACIOS X. (ed.): *Ética y nacionalismo*. UPV. Vitoria.
BALLESTEROS J. (1994): *Postmodernidad: decadencia o resistencia*. Tecnos. Madrid.
IZTUETA P. (1996): *Intelligentzia kimatuaren orbelak*. Kutxa Fundazioa. Donostia.



Aspadiñ urtero eskeintzen zaio omenaldia herritarra Josuri: lore eskaintza, aureskua, hitzalditxoak, bertsoak, bazkaria,...

Etorkizuna geurea da, erresistentzia eta borrokari esker

1998ko iraila honetan, astebete pare baten bueltan, benetako lurrikara politikoa suertatu da Euskal herrian, gatazkaren zenbait aldagai funtsean aldatuz eta abertzale eta aurrerakoion artean itxaropen eta ilusio berriak piztuz.

Euskal Herritarrok-en sorrera, Lizarra-Garaziko ituna eta ETaren su-eten mugagabea, bata bestearen atzetik, oso segidan etorri dira eta konponbide garaiaren atarian gaudela eta fase berri batetan sartzen garela adierazten duten gertakariak dira.

Baina guzti hau ez da ezerezetik sortu, ezker abertzalearen urteetako lanak egin ditu posible horrelako adierazpenak. Orain dela 20 urte Estatu espainiarrean eman zen transizio politikoak ez zuen inondik ere demokraziarik ekarri Euskal Herrira ez zelako onartu euskal herritarron subiranotasuna geure etorkizuna erabakitzeko. Espainiar konstituzioak eta bide estatutistak ez zituzten bermatzen gure eskubide demokratikoak eta espainiar Estatuaren estrategiaren tresna bilakatzen ziren, horrexegatik egin zuen Ezker Abertzaleak beraien aurkako apostua lehen momentutik eta era tinkoan. Urte luzeetan sufrimendu handiz garatutako erresistentzia eta borrokari esker iritsi gara puntu honetara eta ematen dira fase berri bat zabaltzeko baldintzak.

Espainiar transizioak Euskal Herrian izan duen porrotak berriro ere bidegurutze baten aurrean jarri du gure herria. Hau era nabarian ikusi izan da gatazkaren sakoneko gakoa planteatuz ETak bere Alternatiba Demokratikoa plazaratzen duenetik aurrera gatazka klabe demokratikoetan gaintzearen alde eta marko juridiko-politiko berri baten alde gero eta esparru zabalagoak gauzatzen joan diren heinean eta, era berean, euskal gizartearen gehiengo politiko sindikal eta sozialak euskal presoan Euskal Herriratzea gero eta indartsuago aldarrikatu duenean.

Madriletik, guzti honen aurrean, prozesu hau moztu nahi izan dute Ezker Abertzalearen aurka errepresio bortitza erabiliz. HBren Mahai Nazionalaren espetxeratzea, Ezker Abertzalearen aurkako muntaia juridiko-polizialak eta Egin ixteak argi adierazi zuten errepresioa azken muturreraino eramateko prest zeudela nahiz eta horretarako erregimen faxiztatan bakarrik eman daitezkeen neurriak erabili behar izan.

Baina Ezker Abertzaleak errepresioari aurre egiteaz gain ekimen politikorako gaitasuna duela erakutsi du. Egin ixtearen aurrean komunikazio proiektu berri bat martxan jartzeko gai izan da. HBren aurkako eraso zuzenaren aurrean, indar metaketa bilatu du EHren inguruan esparru berriak bilduz.


Eraso espainolistaren aurrean, Irlanda Foroa bultzatzen du eta bertatik jaiotzen den Lizarra-Garaziko Aldarrikapenean Euskal Herriko gehiengo politiko, sindikal eta sozialak gatazka politikoa muga gabeko demokraziaren garapenean oinarritutako elkarrizketa eta negoziazioaren bidetik gaintzearen aldeko apostua egiten du, euskal politikan inflexio puntu historikoa markatuz. Eta, berriro ere, ETaren ekimen politikoa erabakiorra izan da, Lizarratik irtendako trenari ETaren su-etenak eman bait dio izugarritzko bultzada euskal herritarrengan utziz prozesuari aurrera eginarazteko erronka.

Baskondetako hauteskunde autonomikoetan EHK izan duen arrakastak, hautesleen %61ak Lizarrako zinatzaileen aldeko apostua egiteak eta ondoren ETak kaleratutako agiri berriak erabat finkatu dute inflexio puntu berri hau. Orain ondorengo pausoaren bila joan behar dugu eta Estatu espainiarri dagokio ematea. Azken hauteskundeon aurreko egunetan ETari galdetzen zion PPK ea emaitzak errespetatuko zituen. Herritarrek hitzegin dute, ETak ere, baina prest al dago orain, Aznar jauna bera, hauteskunde emaitzetan agertu den euskal herritarren borondatea errespetatzeko?. Hor dago gakoa eta test demokratikoa.

Hitzak eta erabakiak euskal herritarrengan egon behar duela Estatu espainiarrak onartzea da inflexio puntu berria eta, hori lehen bait lehen lortzeko, inoiz baino kementsuago eta ilusio handiagoz lan egin behar dugu abertzale eta progresista guztiok bat eginik. Inoiz baino kementsuago borratu behar dugun moduan euskal preso guztiak barehala Euskal Herrira ekartzeko eta barandu baino lehen kalera ateratzeko.

Denborak arrazoia ematen digu eta etorkizuna geurea da. Orain geure eskuetan dago belaunaldiz belaunaldi gure herriak bizirik mantendu duen askatasunaren ametsa errealitate bihurtzea. Baina ezin dugu ahaztu gauden tokian bagaude gure herriaren historia luzean zehar askatasun horren alde dena emateko prest egon diren gudariei esker dela, eta horren adierazpenik hoberena dugu azken hamarkadotan. Beraientzat gure omenik hoberena garaipena da, eta hori geure esku dago. Ekimenerako garaia da. Jo ta ke irabazi arte!

Txutxi Ariznabarreta



independentzia!

HERRI BATASUNA



Bertso barriak Josu Artetxe Aiestari jarriak

1. Zeberrioko semea
zein baserriko umea
oso gazterik ezetu eban
eskola barnea
bera zen lore ernea
zelan bete hutsunea?
bertsoen bidez egingo dogu
Josuren filmea.
2. Harotz zein argi lanetan
hasi zen oso gaztetan
horrez gainera soloan eta
dantza saioetan
askatasun ametsetan
'eta' borroka horretan
aldegin arte Iparraldera
san Antolinetan.
3. Gertuan eta urruti
batetik bestera beti
Josuk ziñoen: "ai amak nondik
nabilen baleki?"
gau edota egunsenti
ekintzetan bereziki
Altza auzoan billatu eban
azkengo aterki.
4. Milla ta bederatzirehun
hirurogeita hamairun
negu gorriko abenduaren
baziran sei egun
Altzan zeuden gauzak illun
heriotza zetorkigun
gure Josuren azken eguna
gogoratu daigun.
5. Polizi ta guardiak
baltzak ziren goiz argiak
hango tiroak hasi orduko
bedratzi t' erdiak
Josuren azken aldiak
ke artean izerdiak
gertaera hau gorde dezala
euskal historiak.
6. Ai borrokan egoteak
orduak dira urteak
hango tiroek hautsi ebazan
lehio nahiz atreak
goiz osoan atakeak
granada ta ke poteak
deneri aurre egin eutsien
Josu jiganteak.
7. Berrehun bat polizi kirten
bertan asalto birriten
baina Artetxek gudari bat lez
tiroz erantzuten
su artean irakiten
ai pisutik ezin urten
han gure Josu menperatzea
erreza ez zuten.
8. Lagun baten aipamena
arik eta zintzoena
zauzen lekuan euki egizu
beti atsedena
zu lorerik ederrena
eta, fruturik onena
euskal borrokan kantatu Josu
Artetxe izena.



JOSU ARTETXE

AURKIBIDEA

25. urtemugako omenaldiko programa	1
Presentación	2
Aurkezpena	3
* Josu Artetxeri buruz garaiko idazkiak	
- El Correo Español	4
- La Gaceta del Norte	6
- Josu Artetxe Aiesta, duintasun eredu. Txalaparta	8
Josu eta <i>Ogro operazioa</i>	8
Etorki dantza taldean	12
Josu eta <i>Marisol</i> beti elkarrekin	14
10 bider ere gauza bera egindo nukeen	16
Altzan setiatuta	17
* Josuri buruzko lekukotasunak (testimonioak)	
- Florentina Aiesta amaren gogoetak	18
- Ikaskide bat akordun. <i>Txerif</i>	21
- Sokoatik Laudioraino. Pablo	22
- Ez adiorik, <i>Alikates</i> . Iñaki presoak	24
1973. urtean jausitako gudariak	26
Hego Huribeko erori gudarien zerrenda	27
* Egoera politikoaz azterketak	28
- Alcalatik Ugaora. Josu <i>Ternera</i> presoak	29
- Belaunaldiz belaunaldi... Kepa	30
- Etorkizuna geurea da... <i>Txutxi</i>	32
Bertso barriak Josuri jarriak	35
Aurkibidea	36